



**Espedientea: 2OT-037/16-PRUG
URDAIBAI
Urdaibaiko Biosfera
Erreserbaren Erabilera
eta Kudeaketa
Zuzentzeko Plan**

**Expediente: 2OT-037/16-PRUG
URDAIBAI
Plan Rector de Uso y
Gestión de la Reserva
de la Biosfera de
Urdaibai.**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
LURRALDE ANTOLAMENDURAKO
BATZORDEAREN IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA,
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEL PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak uztailaren 28an izandako 3/2016 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

CERTIFICO que en la Sesión 3/2016 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 28 de julio, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

I. “Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana” espedienteari aldeko irizpena ematea, honako hauek ezarritakoekin bat lotesleak diren alderdietan oinarrituta: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea; eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea. Honela baloratzen da:

I. Informar favorablemente el expediente de “Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai” desde los aspectos cuyo carácter de informe es vinculante de acuerdo con lo señalado en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos con las siguientes consideraciones:

a) Aldeko irizpena ematea EKZPak proposatutako zonifikazioari, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ezarritako kategorizazioarekin bat baitator.

a) Informar favorablemente la zonificación propuesta por el PRUG en cuanto que guarda correspondencia con la categorización establecida en las Directrices de Ordenación Territorial.

b) Aldeko irizpena ematea Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko otsailean behin betiko onartutako Landa Nukleoen Inbentarioan halakotzat jotako nukleoei Landa-nukleoaren Eremuaren kategoria gutxitzeari. Ildo horretatik, eta argiago uzteko asmoz, espedienteak Landa-nukleoaren Eremua kategoria bakartzat jo

b) Valorar favorablemente la reducción de la categoría de Zona de Núcleo Rural a los núcleos así considerados en el Inventario de Núcleos Rurales aprobado definitivamente por la Diputación Foral de Bizkaia en febrero de 2016. En este sentido, y con el fin de clarificar, el expediente debería



beharko luke, azpikategoriarik aipatu gabe, Landa-nukleoarena baino ez baitago.

c) Plan honetan ezartzen diren zehaztapenak gorabehera, Ibai-sarea Babesteko Eremuaren (B4) 2.3.2.4 artikulua osatu beharko da; horretarako, berariaz aipatuko da ibilguekiko eraikitze-distantziak inola ere ezin izango direla izan Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko LAParen F.1 "Landa esparruko ertzetarako berariazko araudia" Zehaztapenean jasotakoak baino txikiagoak. Irizpide horiek EKZParen araudian sartu eta erreferentziako Kartografian kontuan hartu beharko dira.

d) Espedienteak "nekazaritza-turismoko landa-hotela, landa-turismoko aterpetxea" motako eraikinak handitzeko baimenen irizpidea bateratu beharko luke; horrela, eraikitako azaleraren % 15 izango litzateke eta handipen hori izaera sozialeko establezimenduen irizpidean agudiatu beharko litzateke.

e) Espedienteak 3.3.3.2 "Eraikuntza-alorreko esku-hartzeak" artikulua 4.a puntua aldatuko du, txostenaren edukian ezarritakoari jarraikiz.

f) Espedienteak 3.3.3.10 "Zatitzeko eta Batzeko eraikuntza-alorreko esku-hartzeak" artikulua aldatuko du, txostenaren edukian ezarritakoari jarraikiz.

g) Ikuspuntu formaletik, espedienteak dokumentuaren hasieran aurkibide artikuluduna izan beharko du, errazago erabiltzeko

II.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriko 3. puntuan batzorde honen inguruan ezarritakoaren arabera, erabaki honetan jasotako

establecer la Zona de Núcleo Rural como una categoría única sin remitir a subcategorías, ya que no existe más que la de Núcleo Rural.

c) El artículo 2.3.2.4 Área de Protección de la Red Fluvial –B4-, al margen de las determinaciones que se establecen en el presente Plan deberá de completarse señalando de manera expresa que en ningún caso las distancias de la edificación a los cauces podrán ser menores que las que marca el PTS de Ríos recogidas en su Determinación F.1 "Normativa Específica para Márgenes en Ámbito Rural"; criterios que deben de ser introducidos en la Normativa del PRUG y ser considerados en la Cartografía de referencia.

d) El expediente debiera unificar el criterio de ampliación permitida en los edificios de - Agroturismo, Hotel Rural y Albergue Turístico Rural- estableciéndola únicamente en el 15% de la superficie construida y argumentando dicha ampliación en el criterio de establecimientos de carácter social.

e) El expediente modificará el punto 4.a del artículo 3.3.3.2 "Clases de intervenciones constructivas", en los términos descritos en el cuerpo del informe.

f) El expediente modificará el artículo 3.3.3.10 "Intervenciones Constructivas de División y Unión" en los términos descritos en el cuerpo del informe.

g) Desde el punto de vista formal, el expediente deberá contener un índice articulado al inicio del documento que facilite su uso.

II.- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el



baldintzak bete ondoren, behin betiko onespena eman ahal izango zaio espedienteari, batzorde honi beste txostenik eskatu beharrik gabe.

II. Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentzia (I. eranskina); Bizkaiako Foru Aldundiren Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza (II. Eranskina); Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusia (III. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen. Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 28an.

expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

II. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos; por URA.- Agencia Vasca del Agua (Anexo I), por la Dirección General de lo Cohesión del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo II) y por la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y el Mar (Anexo III), que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2016.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO
BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS
VASCO



Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga